

45 ■ Legebiltzarkideak Praileaitzen

Kultura Batzordeko kideek leizearen sarrera eta harrobia bisitatu dituzte; emaitza «positiboa» izan da.



52-53 ■ Xabaltzekin solasean

«Iparraldean, urtero gorpu zaharrak errautsetatik ateratzen dituzte», kantariaren iritziz.



DURANGOKO 42. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Gaur irekiko dute Durangoko Azoka

Umorea izango du ardatz azokak, gaurtik igandera, eta Maiatz elkarteak jasoko du Argizaiola saria

IRUNE BERRO
Bilbo

Gaur zabalduko dute Durangoko Azoka, nobedade andanarekin. Eta, urtero legez, jendez beteko da goizean goizetik. Laneguna denez gero, ziur asko, eskolako umeak izango dira, batik bat, gaur azokan, Euskal Herriko punta batetik zein bestetik etorritakoak. Halaxe izaten da urtero: gaztetxoekin hasten da bost eguneko feria.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala, ordea, 19:00etan egingo dute, Elkartegian. Gerediaga elkarte antolatzaileko kideez gainera, politika, kultura eta euskalgintza arloetako ordezkariak batuko ditu ekitaldiak. Durangoko 42. Euskal Liburu eta Disko Azokako sarrera hitzaldia Andoni Agirregomez-korta aktoreak egingo du.

Izan ere, aurtun umorea izango du ardatz azokak. Jon Irazabal azokako zuzendariaren iritziz, «umoreak leku gutxi dauka gaur egun», eta haren esanetan, «behar-beharrezkoa dugu». Hori dela eta, Gerediaga elkarteok umorea gogoan izan nahi dute azokaren bost egunetan, «umore-rik gabeko herria gorringorik gabeko arrautza delako», Irazabalen arabera.

Argizaiola saria Ipar Euskal Herriko elkarte bati emango diote lehen aldiz Durangoko Azokan: Maiatz, hain zuzen. Sariarekin, «Maiatzek euskararen alde musu truk egindako lan garrantzitsua» nabarmendu nahi du Gerediaga elkarteak. «Iparraldean laguntza gutxiago dute, gainera, eta meritua



Mahaiak prestatzen ibili ziren atzo Durangoko Azokan izango diren argitaletxe, diskoetxe eta elkarteetako kideak. MADO SOROA / ARP

handia da hainbeste urtetan argitaletxe txikia mantentzea», azaldu du Irazabalek.

Argizaiola saria emateko ekitaldia larunbatean egingo dute, San Agustin kulturunean, 20:30ean. Aurtun 25 urte bete ditu Maiatz aldizkariak. 1982an sortu zuten, eta hilabete gutxira ekarri zuten Durangoko Azokara. Harrezkero, ez du inoiz hutsik egin, argitalpena azokan izan da urtero.

Jende pilaketarik ez izateko, iaz baino erakusmahai gutxiago jarriko dituzte aurtun: 317, zehatz-mehatz. 161 parte-hartzaile izango ditu azokak, eta denen artean, iaz baino 194 lan gehiago ekarriko dituzte; 554 ekoizpen berri guztira: 395 liburu, 74 disko, 11 partitura, 18 aldizkari, 23 bideo-DVD, 9 argitalpen elektroniko eta bestelako 24 lan. Aurtun, gainera, Egunkariaren Aldeko Elkarteak erakusma-

haia jarriko du, auziaren berri emateko. Baita 18/98+ lan taldeak ere.

GEORGIAKO LITERATURA. Bestalde, Georgia izango da herri gonbidatua. Euskal Idazleen Elkarteak eta Gerediaga elkarteak gonbidatuta, David Turashvili eta David Makradze idazle georgiarrak izango dira azokan.

Hasieran, Nugzar Tsiklauri eta Tamar Elbrilidze ziren etortzekoak, baina Georgiatik ateratzeko bisarekin arazoak izan dituzte, eta haien ordeze, Turashvilik eta Makradzek parte hartuko dute azokan. Georgiako literaturari

Besteak beste, Eva Forest, Joseba Sarrionandia, Jesus Atxa eta Salvador Solaei omenduko dituzte azokan

buruzko hitzaldia emango dute hilaren 8an.

Horretaz gain, liburu aurkezpenak, literatur errezitaldiak, musika emanaldiak eta bestelako ekitaldiak izango dira Durangon, gaurtik igandera. Omenaldiak ere bai. Esate baterako, Eva Forest idazle eta argitaratzailea, Jesus Atxa euskaltzalea eta Gerediagako Salvador Solaei omen- duko dituzte azokan. Aurtun hil dira eta ekitaldi xume batean gogoratuko dituzte etzi, Elkartegian. Irakurketa batzuk eskainiko dizkiete, eta haien lanaz mintzatu dira.

Hori, ordea, ez da izango azokaren testuinguruan egingo den omenaldi bakarra. Bihar Joseba Sarrionandia gogoratuko dute zenbait sortzailek. Erbestean den idazlearen senideei omenaldi egingo diete.

■ EKITALDI NAGUSIAK

Gaur, abenduak 5

- 12:00. DJ erakusketak parte-hartzaileak, Oleakiff-en eskutik.
- 18:00. *Urtebete itsasargian* liburuari buruzko berriketaldia Miren Agur Meabe idazlearekin. Haur literaturako aretoa.
- 19:00. Azokaren inaugurazioa ofiziala. Sarrera ekitaldia, Andoni Agirregomez-kortekin.

Bihar, abenduak 6

- 12:30. *Oroimenaren lapa*, Fredi, Xabier eta Itxaso Paia neba-arrebek eta Unai Eloiari egindako bertso musikatuen ikus- kizun berria.
- 20:30. *Sommer jaunaren istorioak* antzezlanaren estreinaldia. Txalo produkzio- ak. San Agustin kulturunean.

Etzi, abenduak 7

- 11:15. Aurkezpena: alemanera itzultako euskal liburuak.
- 12:00. Film emanaldia: *Kutsidazu bi- dea, Ixabel*.
- 17:30. Aurkezpena: *Desafectos. Fran- coren esklaboak Pirinioetan eta 13M. Ato- txa, El Pozo, Santa Eugenia...* Donibane DVDak. Eguzki Bideoak.
- 20:30. Aurkezpena: *Katamalo* diskoa. Bihotz Bakartien Kluba.

Larunbata, abenduak 8

- 12:00. Georgiako literaturari buruzko hitzaldia, David Turashvili eta David Ba- krade idazleekin.
- 18:30. Mahai-ingurua: *Hemen jaun- goikoari ere barre*. Imanol Lazkano eta Pe- llo Zabala. Moderatzailea: Juan Kruz La- kasta.
- 20:30. Gauean Argi ekitaldia: Argizaiola saria emango diote Maiatz aldizkari- el- karteari, San Agustin kulturunean.

Igandea, abenduak 9

- 12:00. Aurkezpena: *Euskal Herri berria- ra eraikuntza estatala* liburu. Lemuria kultur elkarteak.
- 12:30. 7ak zazpi. Piarres Xarritonen hi- tzaldia, Gratién Adema Zaldubey [1828- 1907] idazle eta olerkariaren mendeurrena dela eta.
- 19:30. Amaiera ekitaldia: Olentzeroren bisita.

XAGUXAR

Durangoko azokan elkar liburuen txokoan

elkar | www.elkar-argitaletxea.com

Xabier Mendiguren
Patxi Gallego

Joxantonio Ormazabal
Elena Odriozola

Katixa Agirre
Patxi Gallego